

## EUSKARAREN IKAS-IRAKAS PROZESURAKO HELBURUAK

---

### ▶ 1.MAILA. Oinarrizko maila.

**Irakurmena:** Herriko aldizkarietako artikuluen nondik norakoa jasotzea eta artikuluen gaia ezagun samarra denetan artikulua osoa, orohar, ulertzea. Edozein errezeta, ohar gutun informal, postal eta informazio orriren mamia errez jasotzea.

**Entzumena:** Kaleko elkarrizketa arruntetan entzule paper ona egingo du eta zenbaitetan parte hartzeko gaitasuna ere izango du. Irrati eta telebistako elkarrizketa eta albistegiak ulertzeko estrategia egokiak izango ditu garatuta.

**Mintzamena:** Eguneroko ohiko kontestuetan (Tabernan, eskolan, lantokian, lagun artean, euskaltegian ...) zailtasunez bada ere, euskaraz mintzatzeko gai izango da, nahiz eta zenbaitetan akatsak ere izan.

**Idazmena:** Gutun informalak, postalak eta oharrak idazteko gai izango da.

### ▶ 2.MAILA. Erdiko maila.

1.Mailako helburuak erreztasunez burutzeko gai izango da ikaslea lau trebetasunetan.

### ▶ 3.MAILA. Goi maila.

**Mintzamena:** Zuzentasunez eta egokitasunez erabiliko du euskara, erritmo egokian eta zehaztasunez. Erreztasunez eratuko du diskurtsoa bai eguneroko bizimoduko kontestuetan, bai ikas-irakaskuntza kontestuetan, bai lan arloan. Egoera komunikatiboari bete-betean egokituko zaio eta hiztegi aberatsa erakutsiko du.

**Irakurmena eta Entzumena:** Mota askotako testuetako idea nagusiak ateratzeko eta informazioa jasotzeko gai izango da, bai ahozko zein idatzizko testuetan. Literatur estilo desberdinekin gozatzeko aukera izango du. Eta ahozkoaren kasuan gaizki entzuten den egoeretako arazoak gainditzeko gauza ere izango da. Euskalkiak bereizteko gai izango da eta baita ulertzeko ere.

**Idazmena:** Kultura orokorraren mailako gaiei buruzko gutunak, artikulua errazak, ipuinak, azalpenak eta antzekoak egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez idazteko gai izango da.

Ikas prozesuari bere kasa ekiteko gaitasuna izango du, ikasketak burutu eta gero ere.